

GARAI BATEKO SAGARDOTEGIETAKO OITURAK

Andoni KORTAJARENA

Costumbres de las sidrerías de otros tiempos. En torno a la sidra y las sidrerías se desarrollaba gran parte del tiempo libre de los alzatarras de no hace tanto tiempo. Comer bien, cantar bertsos, bolos, toka... formaban parte de un ambiente con sus ritos y normas propios. La lectura de este artículo de Andoni KORTAJARENA nos llevará a vivir de cerca ese ambiente que en gran medida pertenece ya a la historia.

“ALTZA, HAUTSA KENDUZ II” alean aipamen berezi bat egite genuen “Garai bateko sagardotegiak” izenburuarekin, eta, oraingoan, berriz, sagardotegietako oiturak sortzen zuten giroari buruz mintzatuko gera.

Herrera auzoan eta bere inguruan, artean alderdi au Altza'ko lurraldea zanean kokatuak zeuden sagardotegien zerrenda bat egiñez, 19 sagardotegi izendatzen genituan, naiz gutxi batzuk bakarrik izan urte osoan salmentan jarraitzen zutenek; gaiñontzekoek, etxeko bearretakoaz gaiñera beste kupel batzuetako sagardoa salgai jartzen zuten edaria bere punttura irixten zanean. Auzotegi ontan ainbeste sagardotegi kokaturik egotea kontuan izanik, garbi ikusten da sagardoa langille jendearen edaria zala, bertako biztanlegoa giza-mailla ortakoa bai-zan.

Naiz oraingo erreztasunik ez izan berriak zabaltzeko, sagardozeak laister jakite zuten noiz eta non astekoa zan kupel berri bateko sagardoa txotxetik saltzen, eta bata-besteari adieraziz multzoka urbilduko ziran sagardotegira eta, benetan euren gustokoa baldin ba'zan, inguru artan ibilliko ziran kupeleko azken kondarrak edan arteraino.

Amaika bertso saio kantatzen zituzten “Txirrita” bersolariak eta bere kidekoek —garai aietan sagardotegiak bai-ziran bertsolari-eskolak— egun osoak bertan igaroz, bertaratzen ziranen atsegiñerako.

Kupelategi bazterreko sukaldetxoetan amaika lur-ontzi edo kaxuelkadak atontzen zituzten bertako etxekoandreek; legatza, katu-arraia eta sapoa saltzan; bixigu, txitxarro eta sardiñak,



Herrerako Errota-Zar Sagardotegia edo Txingurriene. Casares Fototeka: Pauli Tolaretxipik emana.

arrantzatu berriak ziranak, erre-burni edo parrilan erreta, bakoitza bere sasoiean, eta, baita bakaillo-tortillak ere, piperrez ongi ornituak zintzurak egarrierazteko, sagardoa errexago edatearren, eta oso modu onean gaiñera; txopiñeko txarroa (litrokoa) erreal batean (0,25), eta dozena-erdi bat lagunentzako arrain-kaxuelkada bat bost pezta inguru kostatzen zala kontuan izanik. Ez zan ainbesterañoko oiturarik, gaurko egunean bezala, txuleta ederrak erreta jateko, ez orduko okelak sagardoa edateko gai ez ziralako, baizik eta, ziurki sal-neurriaren arabera gertatuko zan, garai aietan gauzak merke saltzen ziran-arren dirua lortzea ez bai-zan ain erreza gertatzen.

Orain-aldian gauzak zearo aldatu diralarik, sagardotegietako giroa eta oiturak ere oso ezberdiñak dira eta gaurko egunean sagardo asebetekada bat egitea ez da merkea izaten.

Sagardotegi geinetan izaten ziran bola-toki eta toka-jokoak. Jolasteko izanez gaiñera, denbora-pasa, taldeka jokatzuz, apustuak egiten ziran ea sagardo-erronda zeñek ordaindu.

SAGARDOTEGIETAKO GIZARTE-LEGEA

Ondoren aipatuko duguna sagardotegietako oituretako bat zan, sagardotegietako gizarte-lege biurtua. Edozein irixten zanean sagardotegira, bertan zeudenak adiskide edo lagunak baldin ba'ziran, era ontan agurtuko zituan: Kaixo jaunak! Edango al dugu?, eta bata bestearen atzetik, errenkan inguratzan ziran kupelaren ondora, eta gonbidatu zituanak lenego zegonari eta onek urrengoari, bataak besteari emanez, denak edaten zutenean, bakoitzak bere edontzi edo basoari eragiñez, azkenengo txitillakin edontziaren espaiña garbitu naiez bezala, baso-kondarra lurrera botatzen zuten. Sagardoa era ontan eskaintzeko oitura zala-ta orduan ere ba-ziran besteak baiño bizkorragoak zirala uste zutenek

eta besteeen bizkar edatea gogoagoa gertatzen zitzaienak. Goiz xamar joango ziran upelategira eta an zeuden bi edo iru ezagunei baso bana sagardo eskaiñi eta geroztik arratsalde guzian berriketan ate ondoan egonez, irixten ziran ezagun bakoitzaren kontura edan eta edan, asebetetzeraino.

ASTE SANTU'KO OITURAK

Beste gauza aipagarri bat gai oni buruzkoa Ostegun-Santu eta Ostiral-Santu egunetako giroa izaten zan. Begirune aundiko egunak ziralarik, bereziki erri txikietan, ez zan jaialdirik izaten, ez zan kartetan jokatzan, ez zan iñolako jolasketarik egiten eta, erritarrek, zintzo-zintzo, elizkizunetara urbiltzen ziran; sermoia entzutera eta prozezioan ibiltzera, naiz urteko beste jaietan ez ingurutu elizara, eta ondoren sagardotegira. Oitura oni buruz, Arozamena bertsolariak Astigarraga'ri eskaiñitako bertsoetako batean ederki jakin erazten du leenago aipatu duguna eta Altza'gatik berdin esan daiteke auzo-erriak dirala kontuan izanik.

*Astigarraga'k pama izandu
sagardo onak izaten,
mutil koskorra nintzan ni baiña
gogoan nola daukaten;
Aste Santuan, elizkizunak,
gero sagardo edaten,
esan nai nuke eztakianak
orain jakindu dezaten.*



Txingurriene etxeakoak (1924).
Casares Fototeka; Pauli Tolaretxipi emana.



Txirritak ederki ezagutu zituen Altzako sagardotegiak. Casares Fototeka; Jose Erauskinek emana.

Eta, esaten zuten, egun oietan ainbat “atxur” ez omen zan urte guzian arrapatzen, eta arazo oni buruz, edalari trebeak ziotenez, “sagardoa edaten jakin bear da eta ondoren maskuria ustutzen ere bai”, eta esaldi au kontuan izanik gogora datorkit Herrera’n kokatua zegoan —aspaldi lurreratua izan zana— “Txingurriene izenez ezagutzen genuen sagardotegi sonatuaren errekaldeko ormak zer bustialdik artzen zituan sagardoa salgai egoten zanean.

BARRIKOTEAK

Beste oitura bat ere oso ezarria sagardozaileen artean “barrikotea” prestatzea izaten zan. Kupeletako sagardoa bere sasoiria eltzera denbora asko bear izaten zalarik bitarte ortan ezin egon-ba sagardo berria edan gabe, eta amar edo amabost lagunek talde bat osaturik, sagardoa egiten asten ziranean, 40/50 litro inguruko barrika bat muztioarekin beteko zuten, eta, sagardotegiko txoko batean kokaturik andik bi edo iru illabetera, edateko puntuan zegoanean, aparti bat prestaturik elkartuko ziran eta noizik bein “mojon” itza entzutean, jateari utzi eta bakoitza bere edontziarekin barrikara urbilduz nai ainbat sagardo edanez jarraituko zuten sagardo-ontzia ustu arteraño.

Esan bearrik ez dago era ortako ospakizunen ondoren, jaki gozoak sagardo ongi bustiak jan-edan ezker, esaera batek dion bezala, “iru euskaldun abesbatza bat” sorturik, amaika abesti; Boga-boga, Maritxu nora zoaz eta era ortako euskal kanta errikoiak abesten ziran, bakoitzak bere kemen guziak jarriaz abesti bakoitzean, barrikako azken kondarrak edan arteraño.

Orrelako sagardo pesta batean parte artutako batek urrengo goizean esnatu zanean eta urdailletik aora besperan edandako sagardoaren guztua zetorkionean, onela mintzatu omen zan. Ura, ura zan ura!, urik gabea”.

Eta, lan onen mamia sagardotegiak eta sagardoa izan diralarik, irakurketa ontan gogorazten diranak ao-zapain askori sortera zion atsegiña gogoratuz, Erramon Artola, tolosar bertsolariak, XIX'gn. mendearen azken aldera jarritako bertsoarekin, "Sagardoa" liburitik artutakoarekin, amaituko dugu.

*Bedeinkatua izan dadilla
sagardoaren graziya,
bai eta ere kupira gabe
eraten duben guziya;
erari onek gizon askori
ematen die biziya,
au eran gabe egotia da
neretzat penitentziya.*

Andoni Kortajarena